

«HERRIAREN ALDEKO GOGOA AHULTZEN DELARIK HIZKUNTZAREN ALDEKO ATXIKIMENDUA AHULTZEN DA»

Erramun Baxok-ekin elkarrizketa

Paulo Agirrebaltzategi

Galdera: Zure ibilbidea ezagutu nahi genuke, Euskal Kultur Erakundearen lehendakaria zaitugu, Pizkundearena ere izan zara. Badakigu Kanadan filosofia irakasle ibilia zarela, gero Euskal Herriko Unibertsitatean, orain uste dut jubilatuta berria zaitugula, ezta?

Erramun Baxok: Hogeitun urte pasa nituen Quebecen, filosofia irakasle. Denbora biziki interesgarria zen, mugimendu askorekin, hain zuzen 1968ko iraultza lasaiaren jarraipenean. Gainera 10 urtez eztabaida luze bat izan zen frantsesaren legeztatzeaz. Lehen bi legeak, 63garrena eta 22garrena, herritarrek ukatu zituzten. Azkenean Alderdi Independentista nagusitu zen eta 1977an frantsesaren lege nagusia bozkarazi zuen: 101garrena, *Charte de la langue française*. Lege horrekin frantses hizkuntzak eta kulturak behin-betiko garaipena irabazi zuen.

Jadanik frantsesa zerabilten familietan, eskoletan, elizetan, 101 legeak bere lehen artikuluan frantsesa Quebecoko hizkuntza ofiziala definitu ondoren, gero toki guztietara zabaldu zen. Ordurarte eremu tradizio-

naletan zegoen hizkuntza, eremu modernoetan ere sartu zen, lantegietan, banketxeetan, administrazioan.

Euskal Herrira itzuli ginelarik, euskarari buruzko nire lehen ekintza 1981eko ihardunaldiak izan ziren. Gauza berria zen elkarte guztiak bildu ginelarik programa bat egiteko, *Statut de la langue et de la culture basques*. Delako «liburu horian» hamar urte iraun duen egitaraua idatziz genuen. Orduan sortu zen Pizkundea, Haritxelar buruzagi, ni idazkari.

Galdera: Hemen nahikoa ezaguna dugun William Mackey ezagutu duzu, zeren gogoan dut BAT-SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIAREN 1. zenbakian hain zuzen beraren liburu bat aurkezten zenuela: *La mortalité de la langue et le bilinguisme des peuples*.

E.B.: William Mackeyk artikulu zorrotz horretan hizkuntzen hilkortasuna aztertzen zuen. Alabaina, hizkuntzek ere badute bizitza bat. Ez dakigu noiz sortu ziren. Haatik zenbait garatzen dira, besteak ahultzen, urtero hizkuntza batzuk desagertzen dira. Aipatu idazkian fenomeno horien diagnosis agertu zuen, Euskal Herriarentzat ere aplikagarri dena.

Galdera: Ideia honetatik has gaitezke: hizkuntzen heriotza esplikatzeko hiru teoria aipatzen dituzu, Mackeyrengandik hartuta. Aurkeztu zenuen baita ere *L'aliénation linguistique*; hizkuntzen heriotzaren teoria zerbait sakontzea edo behintzat gehixeago azaltzea nahi genuke; nik uste zerbait esan nahi duela euskararentzat ere.

E.B.: «Mortalité» hitzak, heriotza baino hobeki hilkortasuna esan nahi du. Gaixotasun hori, idazleak arriskutzat hartzen du baina ez da ezinbestea (fatalité). Hemen aipatu teoria orain oso ezaguna da, hizkuntza gutxitu batentzat elebitasuna arriskugarria dela, egoera hobereana elebakartasuna delarik. Quebecen frantsesa hizkuntza ofizial bakarra da. Legeak ez du ingelesa ere aipatzen. Ondorioz gauza guztiak frantsesez egin behar dira.

Gertatzen dena da hizkuntza gutxitudunentzat elebakartasuna ez dela hain erraza, definizioz hizkuntz eremua txikia delakotz eta ibiltzeko beste hizkuntzak ere jakin behar baitira. Hala ere, elebitasunaren ordez, William Mackeyk, diglosia funtzionala proposatzen du: eremu batzuetan herri-hizkuntza bakarra izanen da eta eremu guztiak orokorri hartuz lehena izanen da. Herri-hizkuntzari lehentasuna emanen zaio,

«Hizkuntza gutxitu batentzat elebitasuna arriskugarria da, egoera hobereana elebakartasuna delarik»

«Elebitasunaren ordez,
William Mackeyk,
diglosia funtzionala
proposatzen du: eremu
batzuetan herri-
hizkuntza bakarra
izanen da eta eremu
guztiak orokorki hartuz
lehena izanen da.
Herri-hizkuntzari
lehentasuna emanen
zaio, komunikazio
zabalerako beste
hizkuntza baten
beharra baldin badugu
ere»

komunikazio zabalerako beste hizkuntza baten beharra baldin badugu ere.

Galdera: Diglosia ondo mugatu hori onartuta, euskararen kasuan, unibertsitatean euskarak izan behar du irakaskuntz hizkuntza zientzietan, ikerkuntzarako hizkuntza gisa erabili behar da nahiz eta gero ikerkuntza hori zabaltzeko beste hizkuntzak erabili behar, ingelesa edo bestelako hizkuntzak. Hori adierazi nahi duzu?

E.B.: Berehala aplikazioetara pasatzen gara, teoria errazagoa delarik. Helsinkiko unibertsitatearen adibidea hor dugu. Hasieratik unibertsitate bat herri-hizkuntzaz ezarri zuten, suomieraz, bestea suedieraz jarraitzen zuelarik, orduko hizkuntza nagusia baitzen. Teoriaren beste aplikazioa, Montrealen badira lau unibertsitate, bi ingelesdun eta bi frantsesdun. Zergatik holako bereizketa? Unibertsitate berean bi hizkuntzak borrokan uzten badira, batari edo besteari lehentasuna eman gabe, hizkuntza indartsuak garaituko du. Zorigaitzez Euskal Herrian, herri-hizkuntza ez da hizkuntza indartsuena, ez Hegoaldean, are gutxiago Iparraldean.

Galdera: Orduan, teoria horren arabera, diglosia neurtu horren arabera euskararen funtzioak ez dira unibertsitatean gelditzen.

E.B.: Diglosia hitzaren erabilera guretzat ezkorra da erdararen aldeko diglosia baita. Euskararen aldeko diglosia funtzionala helburutzat hartu beharko genuke, hain zuzen, herri-hizkuntzari lehentasuna emateko. Horretarako euskarak eremu batzuk bereganatu behar ditu, hala nola, familia, irakaskuntza, unibertsitatea.

Galdera: Aipatzen ari garen artikuluko honen azken aldera, laburbilduz, hizkuntzaren bizitza, betetzen dituen funtzioak direla esaten duzu.

E.B.: Osasuna eta hilkortasuna aipatu ditugu. Zein da hizkuntza baten osasunaren neurria? Betetzen dituen funtzioen zenbakia. Funtzio anitz betetzen duen hizkuntza osasunean da. Txillardegik eta beste soziolinguistikazale batzuek badituzte teorema matematikoak hizkuntza baten funtzionaltasunaren neurtzeko. Zein funtzio? Euskarak familia hizkuntza izan behar du, transmisioa ziurtatzeko. Eskolako hizkuntza ere bai, ikasten ez den hizkuntza ez baita erabiltzen; ikasten dena ere, ez beti. Komunikabideetako hizkuntza ere bai.

Euskal Herrian oraindik kontuan ez duguna, lanaren eremua da. De-

nek denbora anitz pasatzen dugu lan egiten. Lan lekuetan ez bada euskararik, gure hizkuntza indargabe geldituko da. Zailtasuna hau da, lanaren eremu guztia ez dela botere publikoen esku, administrazioa den bezala. Ondorioz beste era batera jokatu behar da.

Galdera: Hegoaldean eta Iparraldean ere seguruenik Administrazio Publikoaren hizkuntz politika, legez, ez da enpresa pribatuan, lan munduaren eremuan sartzen, baina Quebecen sartu da, ezta?

E.B.: Quebecoko Gobernuak lantegiei eta enpresei bost urteko epea eman zien frantsese agiriaren erdiesteko *Certificat de francisation*. Badakigu estatuak toki handia daukala ekonomian. Gobernuak erabakia hartu zuen agiridun enpresekin harremanetan jarriko zela, besteekin ez. «Business» argudio hori biziki eraginkor agertu zen. Esan ere langile gehienak frantsesdunak zirela, nagusiak anglofonoak baldin baziren ere. Hortakotz sindikatak mugimendu horren alde agertu ziren.

Galdera: Seguruenik gure artean, Iparraldean nahiz Hegoaldean, hau zailagoa da. Gasteizko Jaurlaritza zerbait egiten ari da enpresetan baina oraindik oso urruti gaude Quebecoko Gobernuak hartu zituen erabakietatik. Quebecokoak zerbait irakasten al digu, Euskal Herrian euskara lan munduan nola sartu ikasteko?

E.B.: Esan ere, gobernuak laguntzak eman zizkietela enpresei, nola teknikaren aldetik hala diruaren aldetik. Adibidez idazkien frantsesetako gastuak bere gain hartu zituen, papereria ala publizitatea.

Galdera: Ukitu dugu hizkuntzaren hilkortasunaren, hizkuntzaren bizitza eta betebeharreko funtzioen gaia. Kontzeptu nagusi bat badugu zuk sarritan erabili izan duzuna hitzaldietan, artikuluetan... euskararen lurraldetasuna, alegia. Lurraldetasun kontzeptua kontestu politikoan erabili izan duzu baita ere, azken aurreko Jaikin aldizkarian, hain zuzen ere. Pizkundearen bilkuran ere lurraldetasuna eta ofizialtasuna eskatu zenituen. Esplika iezaziguzu orduan zer ulertzen duzun bi kontzeptu horietaz.

E.B.: Ofizialtasuna hobeki konprenitzen dugu lurraldetasuna baino. Orain arte Iparraldeko euskaltzaleok lurraldetasuna baztertzen genuen kontzeptu politikotzat edo ekonomikotzat hartuz. Eurokartaren zazpigarren artikulua lurraldea hizkuntzari lotzen dio, estatuei galdegiten dielarik hizkuntz gutxituen lurraldetasuna errespetatzeko beren zatiketa administratiboetan.

«Montrealen badira lau unibertsitate, bi ingelesdun eta bi frantsesdun. Zergatik holako bereizketa? Unibertsitate berean bi hizkuntzak borrokan uzten badira, bati edo besteari lehentasuna eman gabe, hizkuntza indartsuak garaituko du»

«Zorigaitzez, estatu frantsesak herritasuna ere ukatzen digu, guri, Kortsikarrei eta beste herritarrei: *Il n'y a qu'un seul peuple français*». Orduan guk euskararen ofizialtasuna eskatzearekin batean, gure herriak behar duen lurraldea ere eskatzen dugu, era berean eta logika berarekin»

Ohartu gara lurraldetasunak baduela esanahi kulturala. 94ko udan Deiadar kolektiboak *Euskararen Agiria* idatzi zuelarik, kontzeptu berri hau definitu genuen 6. artikuluan: «*Ahal bezain laster eta Eurokartak onesten duen bezala (7.art, b), Ipar Euskal Herria kudeatuko duen instituzio politiko-administratibo berezia sortu behar da. Instituzio honek bere gain hartuko du euskararen normalizaziorako ardura publikoa*».

Lurraldea herriari, «populuari» lotua da. Lurralterik gabeko herriari zerbait falta zaio. Zorigaitzez, estatu frantsesak herritasuna ere ukatzen digu, guri, Kortsikarrei eta beste herritarrei: «*Il n'y a qu'un seul peuple français*». Orduan guk euskararen ofizialtasuna eskatzearekin batean, gure herriak behar duen lurraldea ere eskatzen dugu, era berean eta logika berarekin. Arrazoi kulturalengatik.

Galdera: Hala ere, gure artean lurraldetasun kontzeptua kontzeptu juridiko-politiko horien gisa erabili izan da. Hau da, lurraldetasuna, hizkuntzaren lurraldetasuna, lurraldetasunaren irizpide juridikoa, irizpide pertsonalaren aurrez aurrekotzat. Ez dakit diferentetzat ulertzen dituzun bi kontzeptuak edo lotu egingo zenukeen.

E.B.: Ez gara eztabaida zorrotzetan sartuko, uste dut lurraldetasun linguistikoa eta juridikoa elkarri lotuak direla. Hegoaldeko legeriak aztertzen ditugularik, bi lurraldetasunak elkarri lotuak dira. Espainiako Konstituzioak gaztelera definitzen du estatu osoaren hizkuntza ofiziala bezala, eta denbora berean koofizialtzat onartzen ditu Komunitate Autonomoetako hizkuntza bereziak. Badakit hizkuntza horiek ez direla hein berean. Iparraldeko kasuan gauzak atzeratuago dira: gure hizkuntz eskubidea indibiduala da eta ez kolektiboa. Quebecoko egoera argiago da, lurraldean hizkuntza ofizial bakarra dute, anglofonoen eskubide historikoak errespetatuz.

Galdera: Euskal Komunitate Autonomoko euskararen status juridikoa gehiago da eskubide pertsonala. Aldez aurretik euskara Euskal Herriko hizkuntza propioa, berezia dela esaten da, baina gero eskubide pertsonalak defenditzen dira, ez halako lurralde baten hizkuntza gisa. Lurraldetasun kontzeptu hori nahiko anbiguo dugu.

E.B.: Euskal Komunitate Autonomoan hizkuntzaren lurraldetasuna ez da Quebecen bezain argi finkatua. Eta Iparraldean are gutxiago. Hemen Euskal Herriak ez du lurralde administratiborik. Frantziako konstituzioak errepublika bakarra eta ezin zatitua aldarrikatzen du. Ondo-

rio logikoa da herri bakarria lurralde bakarrean. Hala ere, Kortsikari lurraldetasuna onetsi dio, herritasuna ukatu baldin badio ere. Guk ez dugu eremurik ere, lurralde historikoa estaltzen duenik. Noizbait hizkuntz lege bat balitz, euskara eskubide pertsonala litzateke: eskubidea genuke euskara erabiltzeko, beste edozein hizkuntza erabiltzeko bezala.

Galdera: Utz dezagun momentuz lurraldetasunarena, ofizialtasunera pasatzeko. Pizkundearen bilera batean esan zenuen lurraldetasuna eta ofizialtasuna direla behar ditugunak euskararen arrerabidea finkatzeko. Baina gero Euskal Kultur Erakundearen beste bilera batean hizkuntzaren legalizazioa erabili zenuen, ez ofizialtasuna. Ez dakit bereizten dituzun hala berdintzat hartzen dituzun.

E.B.: Legalizazioa eta ofizialtasuna gauza bera da niretzat. Baina alde batetik Europako idazkiek legezko onarmena aipatzen dute eta ez ofizialtasuna. Bestalde hitz hau kontzeptu zabal bat bilakatu da zernahi sartzeko moldean. Berrikitan Euskaltzaindiak «*onura publikoa*»ren onarmena erdietsi du, beste elkarte askok daukaten bezala. Euskal Kultur Erakundeko biltzar batean, jaun prefektak galdegin zigun «*utilité publique-onura publikoa*» erdiesten bazen Euskaltzaindiarentzat, nahikoa izanen zenetz ofizialtasunaren eremuan. Erantzun genion hastapen bat izanen zela, ezer baino zerbait gehixeago.

Ofizialtasunaren beste anbiguitatea da hizkuntz irakaskuntzan mugatzea. Hor ditugu *Deixonne legea* (1951) eta *Haby legea* (1975). Bide horretatik, euskara eta beste sei herri-hizkuntza Hezkuntza Publikoan sartu ziren. Beraz ofizialtasun zerbait. Egun hauetan eta hauteskunde garaian *Goazgen lege proiektua* atera digute, eskualde hizkuntzen irakaskuntzaz (*l'enseignement des langues régionales*). Lege hori bozkatuko balitz, hor ere ofizialtasun murrizta erdiets genezake.

Uste dut estrategiaz aldatu behar dugula eta hori Garapen Kontseiluan esplikatu nuen. Europako idazkien mintzamoldea hartu behar dugu. Hor dugu Kilillea erabakia *résolution Kilillea*, Europarlamentuak onartu zuena 1994ko otsailean, Eurokartaren akulatzeke. Testu horretan herri-hizkuntzen estatusa argi eta garbi definitua da hiru puntutan:

1. Herri bakoitzak eskubidea dauka bere hizkuntza eta kultura errespetatuak eta legez zainduak izan daitezen.
2. Hizkuntza eta kultura gutxitu guztiek hartzen dute «*legezko izate*

«Uste dut estrategiaz aldatu behar dugula eta hori Garapen Kontseiluan esplikatu nuen. Europako idazkien mintzamoldea hartu behar dugu»

«Botere publikoaren
aitzinean
hitzegiterakoan,
Kilillea erabakiak
definitzen duen lege
egokia eskatu behar
dugu. Ofizialtasunaren
kontzeptua zabalegia
eta ilunegia da
negoziaketa batean
erabiltzeko»

egokia» (*statut légal approprié 3. art.*).

3. Lege egokiak gutenez eskatzen du hizkuntzen eta kulturen erabile-
ra eta garapena ikaskuntzan, administrazio publikoan, justizian, to-
ponimian, komunikabideetan, gizartean eta kulturgintzan (4 art.).

Hemendik aurrera testu horietaz baliatu behar dugu, zuzenbidearen
eremuan sartzen baikaituzte eta gure eskubideak ongi definitzen bai-
tituzte. Frantzian ez direla onartuak? Nazioartean bai, eta hori da gure
indarra. Beraz, botere publikoaren aitzinean hitzegiterakoan, Kilillea
erabakiak definitzen duen lege egokia eskatu behar dugu. Ofizialta-
sunaren kontzeptua zabalegia eta ilunegia da negoziaketa batean era-
biltzeko.

Galdera: Frantziak ez ditu sinatu ez Karta, ez Kilillea ezta Kuij-
persen garai bateko erabakia. Ez dut uste Estatuak sinatu behar
zutenik ere. Uste dut gainera, Frantziako Gobernuak zera eran-
tzun duela; bere Konstituzioak Karta sinatzea eragozten diola. Eus-
kal Herriak egin beharko litzatekeena horiek betearaztea edo ho-
rien alde borrokatzea zala proposatu genuen, ofizialtasunaren kon-
zeptu abstraktu hori nolabait konkretizatzen dutelako agian. Eus-
kal Kultur Erakundeak hortik joko du?

E.B.: Eurokartaren eztabaida egin genuen EKEN 1992an. Gobernuaren
ordezkariak mintzatu ziren aurka, eta beste guztiak alde, Euskaltzai-
nak jakina, elkartearen ordezkariak, baita tokiko hautetsiak ere. Baina
Kultur Erakundeak ez delakotz erabaki politikoen hartzeko lekua, hi-
tzartu genuen eskaerak bozkatuko zirela botere publikoaren maila ez-
berdinetan: departamentuko Kontseilu Nagusian, Herrien arteko eus-
kal Sindikatan. Adibidez, Sindikatan mozio bat aho batez (salbu boz
bat) erabaki zuten gobernuak Eurokarta sinatu behar zuela. Ondorio-
ak ikusi ditugu!

Hala ere, hizkuntz legearen eztabaida Garapen-Kontseilura eramanen
dugu. Erakunde honetan daude kulturzaleak, ekonomikoak, adminis-
trazio arduradunak eta hautetsien ordezkariak. Apirilaren 17ko Bil-
tzar Nagusian gure mozioa aho batez onartu zen. Garaia da gure
nahiaren agertzeko. Borondate orokorra baita demokraziaren oinarria,
biltzar ofizial guztietaz baliatu behar dugu.

Estrategia mailan Frantziako beste 5 herriekin hitzartzen ari gara, Bre-
tainia, Korsika, Katalunia, Okzitania eta Alsaziarekin. Zer egingen du-
gun? Ekintza gero eta indartsuagoak eramanen ditugu, egun berean
lurralde bakoitzean edo elkarrekin Parisen, erakusteko zein diren gure

nahiak eta ahalak. Auzi hau Bruselara eraman nahi genuke lehenbait lehen. Beharrez delegazio handi bat igorriko dugu, Frantzian ukatzen dizkiguten eskubideak Europari eskatzeko.

Galdera: Zergatik dago Estatu frantsesa hain uzkur Europatik datozen erabaki hauek onartzeko? Konstituzioan duela oztopoa, baina funtsean borondate politikoa falta da, ezta?

E.B.: Kasu honetan konstituzioa aitzakia bat da. Teorian estatua herritar indibidualen bilduma da eta ez dago bitarteko erakunderik herritarren eta errepublikaren artean, ez herririk, ez komunitaterik, ez lege berezirik. J. Chirac-ek zion: «*Federaziorik ez dago frantses kulturaren*». Teoria hori oinarritzko mito bat da, «*mythe fondateur*», eta deus ez du ikuskerorik errealitate historikoarekin. Egia esan lege berezi asko daude herri eta hiri batzuentzat: Alsazia, Korsika, Paris, Marseilla eta beste. Zergatik ez herri-hizkuntzentzat? Zorigaitzez, mitoek bizitza luzea dute.

Galdera: Zerikusirik ba al du eskatzen duzun lurraldetasunak Euskal Herriarentzat, orain arte aipatu dugun hizkuntzaren lurraldetasunarekin?

E.B.: Berdintasun zerbait bada lurraldetasun linguistikoaren eta politikoaren artean, Iparraldeari begira. Bi kasu horietan sinboloak ematen dizkigute eta errealitatea ukatzen. Lurralde historikoari begira Biltzar batua badago, auzapezen bilgune. Kultura mailan Herrien arteko euskal sindikata Uztaritzen biltzen da «*Syndicat intercomunale pour le soutien à la culture basque*». Ekonomiaren alorrean Baionako Komertzialdegia, Euskal Herriko Komertzialdegi bilakatu da, Zuberoa bereganatuz, lehen Paberi lotua zelarik. Orain dugun Garapen Kontseiluak ere gure herri historikoaren eremua estaltzen du.

Hor dira sinbolo kulturalak, ekonomikoak, politikoak, baina errealitatek ez daukate. Ikurrak dira, besterik ez. Erakunde horiei falta zaizkie indar politikoa, indar ekonomikoa, edo biak. Beraz, ezin dute erabakirik har egiazko lurraldea finkatzeko, denbora berean politikoa, ekonomikoa eta kulturala. Nortasun kolektiboa zatitzen digute. Ni beldur naiz ikurrak ematen baitizkigute, hain zuzen, herriaren izatea ukatzeko.

Galdera: Euskal Kultur Erakundea maila berean gelditzen ote da?

E.B.: Euskal Kultur Erakundeak kulturzaleak biltzen ditu, lau maile-

«Ni beldur naiz ikurrak ematen baitizkigute, hain zuzen, herriaren izatea ukatzeko»

«Herri batek bere kultura gara dezake, izate politikoa garatu gabe. Alderantziz, aspaldi du Irlandan independentzia politikoa bereganatu zutela, eta denbora berean nortasun kulturala ahuldu zen»

tako botere publikoen ordezkariekin: gobernu, Akitania, departamendu eta udalak. Helburuak kultural hutsak dira. Gure babes politikoa Herrien arteko euskal Sindikata da, bozkatzen duen buxetarekin (2 libera herritar bakoitz) eta ezin dezakegu ezer erabaki lurraldetasunari begira. Hemen ere ikurra eder, baina errealitatea ahul.

Galdera: Kapitulu hau amaitzeko, autodeterminazio kulturalaz hitz egin behar dugu. Gogoan dut nola eman zenuen hitzaldia, duela pare bat urte Donostian: autodeterminazioaz mintzatu zinen. Quebeceko esperientziatik abiatuz autodeterminazio forma desberdinak bereizi zenituen. Gogoratzea nahi nuke, orduan eman zenuen ideia oso interesgarri iruditu baitzitzaidan, eta zerikusirik bazuen orainarte aipatu ditugun edo solasaldi honetan erabili ditugun gaiekin.

E.B.: Herri bat autodetermina daiteke kulturaren edota politikaren aldetik. Bi erabaki kolektibo hauek ez doaz beti elkarrekin. Quebecen hizkuntzari buruz autodeterminatu ziren 1977ko legearen bidez. 1980ean independentziari buruzko erreferenduma egin zelarik, gehien-go handi batek eza adierazi zuen. Herri batek bere kultura gara dezake, izate politikoa garatu gabe. Alderantziz, aspaldi du Irlandan independentzia politikoa bereganatu zutela, eta denbora berean nortasun kulturala ahuldu zen.

Hala ere, esaten nuen bi autodeterminazioen artean badela lotura bat. Erabaki-ahalmen fitsik ez duen herriarentzat zaila da herri-hizkuntzaren zaintzea. Iparraldean erakunde administratiborik ere ez dugu. Orduan, nork hartuko ditu gure kulturari buruzko erabakiak?

Galdera: Badu zentzurik autodeterminazio kulturalaz edota hizkuntz autodeterminazioaz hitzegiteak?

E.B.: Berriz ere ofizialtasunaren eta lurraldetasunaren auzira etortzen gara. Biak beharrezkoak dira eta bata bestea laguntzen du. Bi kasuetan oztopo konstituzionala ezartzen digute. Zerk daukan prioritatea eta nola jokatu behar dugun, hemen estrategia hutsean sartzen gara. Bi borrokkak daramatzagu alor askotan, baina ordena gutxirekin.

Galdera: Etor gaitezen Euskal Herrira, badut esaldi bat «Gaur egun ezin da erran euskarak Iparraldeko Euskal Herria definitzen duenik». Hori Baxokek esaten du. Zer adierazi nahi duzu honekin?

E.B.: Ohar horrek bizpahiru esanahi dauzka. Alde batetik, beste he-

rrialdeetan bezala, hemen ere gehiengo handia erdalduna da. Txillardegiren hitza erabiliz, Euskal Herrian baino gehiago erdal herrian bizi gara.

Beste gauza bat ere esan nahi luke. Abertzale batzuei euskara ez zaie oinarritzko iruditzen eta ez dute borroka zorrotzik eramaten euskararen alde. Heientzat euskara ez da beren nortasunean sartzen.

Hirugarren esanahia da euskaldunen axolagabea. Deiadar kolektiboan *Euskararen Agiria* idatzi dugu eta orotara zabaldu. Barnealdean harritu egin dira, burutik behera erori zaien testu hau hiritarren utopia dela esanez. Heiek badituzte beren kezka, euskarak baino lehentasun gehiago dutenak. Euskara halako luxu bat zaie. Egunero darabilte, baina horrek ez diete aberastasun handirik ematen. Heientzat euskara halako kezka artifizio bat zaie, Baionesez asmatua.

Galdera: Hori esatean ezkor agertzen zara. Euskaldunon Egunkarian argitaratutako artikuluan, zurean eta Txomin Heguyrenean, bien artean badago halako desberdintasun bat, azken urteotan eman diren urratsei buruz. Iparraldeari begiratuta, Ikastolen hitzarmena dela, Euskaltzaindiaren nolabaiteko onarpena dela, EKE bera, Pariseko Gobernuaren jarrera diferentea, hitzezkoa bederen. Hori guztia badago. Zu askosaz pesimistagoa ikusten zaitut Txomin baino. Urrats hauek kilikolo ikusten dituzu?

E.B.: Lehenik esan Txominekin badugula konplizitate asko. Ez gara hitzartzen artikuluen egiteko. Bakoitzak bere modura idazten dugu, artetan probokazio zerbaitekin.

Nabari da denek elkarrekin egin ditugun urratsak aitzinakorrak direla normalizazioaren bidean. Hala ere, oraindik biderditan gara. Ikastolak ongi, eskola elebidunak ere bai, baina orotara %20 ikaslerentzat besterik ez. Gauza baliagarriak irabazi ditugu, baina helburu inportanteenak ukatzen dizkigute. Ofizialtasuna eta lurraldetasuna ukatuz, beste aitzinamendu guztiak prekaritate batean ezartzen dizkigute.

Adibidez, haurrek euskara inoiz baino gehiago ikasten dute eskolan. Ohartuko direlarik euskarak ez duela lanposturik sortzen, ez duela ezer balio ez lanean, ez administrazioan, laster gazteentzat hizkuntza sinboliko bilakatuko da. Orduan erakunde ofizial batean ari garenok euskal kulturaren errealitatea gogoan daukagu. Hori da jokabiderik hoberena lan onaren egiteko, halako pesimismo eraginkor batean (*pesimismo actif*), prefeta batek zioenaz.

«Gauza baliagarriak irabazi ditugu, baina helburu inportanteenak ukatzen dizkigute. Ofizialtasuna eta lurraldetasuna ukatuz, beste aitzinamendu guztiak prekaritate batean ezartzen dizkigute»

«Ikasleentzat herrian ikastea eskubide nagusi bat da. Eta herriarentzat behar diren ikastetxeak eraikitzea lehentasunezko eginbidea da, gazteria herrian atxikitzeko»

Kultur Erakundeak, kulturgintzaz gain, bi proiektu beharrezko bultzatzen ditu: euskal pedagogi zentro bat eta euskarazko irratien jarraipena. Ikas zentroarentzat erabakiak hartuak dira eta diru-laguntzak abiatuak, eta hitzarmen baten zain gaude Kontseilu Nagusiarengandik. Komunikabideen alorrean zerbitzu publikoek ez digute kasik ezer ematen euskaraz: telebista publikoan egunero minutu bat eta irradi publikoan egunero ordu bateko emankizuna. Hiru elkarte irradi badiugu. Gure irratia, Irulegiko irratia eta Xiberuko Boza, baina gaur egun zailtasunak dituzte teknikaren eta diruaren aldetik. Zerbait egin behar dugu komunikabide entzunenak isil ez daitezen.

Galdera: Beste urrats baten bila ikusten ditut gazteak; Iparraldean sortua da IEHIE (Ipar Euskal Herriko Ikasleen Elkarte). Hori izan daiteke hurrengo urratsa: Unibertsitatea Ipar Euskal Herriarentzat. Kasu honetan, zein izan daiteke etorkizun hurbilari begira euskararen lekua hor?

E.B.: Unibertsitateko arazoa hurbiletik ikusten dut, Euskal Herriko Unibertsitatean lan egiten dudalako. Iparraldeko Unibertsitate autonomoa eta elebidunaren ideia, irakasle batzurengandik sortu zen, euskal ikaskuntzaren beharrak ikusiz. Orain ikasleek bereganatu dute borroka hau. Ohargarri da hemengo ikasle oso gutxi, 2.000 batek, Baionan ikasten duela: Gehienak (5.000) badoaz Bordelera, Pabera edo Parisera. Ikasleentzat herrian ikastea eskubide nagusi bat da. Eta herriarentzat behar diren ikastetxeak eraikitzea lehentasunezko eginbidea da, gazteria herrian atxikitzeko.

Galdera: Horiek, aipatuak dituzue lehentasunezko helburu gisa EKEN. Inportantea da Euskal Herri osoaren perspektiba begiratzeari. Badakit azken EKEN Eusko Jaurlaritzako ordezkari bat izan dela; Irisarriko jaialdian ere izan zen beste bat. Nola ikusten duzu elkarlana edota Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko elkarreragina?

E.B.: Euskal Herri osoari begiratuz, bi bide ikusten ditut: herri-mugimendua eta bide ofiziala. Lehenik honetaz hitz egiten dut. EKE daukagun erakunde ofizial bakarra da eta hor daude botere publikoaren lau mailatako ordezkariak. Biltzar Nagusian agertu zen gauza berria J. M. Muñoa jaunaren eskaintza publikoa izan zen: Eusko Jaurlaritzaren kanpo-harremanetarako ordezkaria prest legokeela erakunde honen Administrazio-Kontseiluan sartzeko. Bulegoak adostasun osoa adierazi dio eta seguru gara presentzia hori sinbolikoa baino gehiago izanen dela.

Bestalde, Akitania, Euskadi eta Nafarroaren arteko fondoan dirulaguntzak badira kulturarentzat. Horrek esan nahi luke laguntza ekonomiko programatu batzuen itxaropena badela. Guk horrelaxe ulertu dugu eta biziki pozten gara, zeren eta badugu Hegoaldearen beharra nola telebista hala liburugintzaren aldetik. M. K. Garmendia Kultur Sailburu andereak 5.000 liburu erdietsi dizkigu Iparraldeko 200 liburutegirentzat. Lankidetzat bide berri batzuk agertzen zaizkigu.

Galdera: Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, AEK, mugimendu sozialen mailan; EHE, Euskal Herri osoan diharduena; Euskaldunon Egunkaria egunkari nazionala, definizioz eta jokabidez; UEU, betidanik Euskal Herri osoan diharduena; EKB, Euskal Herri osoko hainbat elkarte eta erakunderen koordinakundea; ETB, azken aldian izan dituen bere gorabehera eta guzti. Euskal Herri osoko erakunderik sortzeko ahaleginik egin da. Uste duzu benetan, kontuan edukita gertatu diren egoera ezberdinak, Euskal Herri osoa hartzen duen kultur erakunde nazionala sortzeko aukerarik badagoela?

E.B.: Euskal Herri osoan diharduten elkarten zerrenda luza daiteke: bertsolariak, idazleak, dantzariak, kantariak eta horien guztien beharra bada. Hala ere harremanak ez dira beti errazak eta noizean behin gertatzen zaigu halako kolonizazio pentsamoldea hegoaldekoei buruz, gu kontsumitzaile soilak bagina bezala. Bai Hegoaldearen aldetik, bai Iparraldearen aldetik bada «kontzientziazio» falta. Teorian badakigu anaiak garela, praktikan ordea anaitasun hori ez dugu hainbat sentitzen.

Adibidez, EKBk antolatu zuen Euskal Herri osoarentzat. Guk hemen Pizkundea lehen eta Konfederazioa orain dauzkagu dossier batzuren akulatzeke eta herri ekimen zenbaiten antolatzeko. Baina EKBren bilkuretar joaten garelarik, Hegoaldeko egoera da mintzagai nagusi eta hor badago muga psikologiko edo kultural bat, muga politikoa apaltzen ari delarik.

Galdera: Zertan daukagu ETBrena eta horren onarpena Iparraldean zabaltzeko?

E.B.: Hemen ere bada bide ofiziala eta ez ofiziala. Bigarren hau hobeki ezagutzen dut. ETB kostaldean ikusentzuten zen eta oso gutxi barnealdean. Antena edo haga batzuk ezarri behar ziren mendi gainetan. CSA (*Conseil supérieur de l'audiovisuel*), komunikabideak zaintzen dituen erakunde nagusiak debekatu zuen ETB zabaltzea ez zituelakotz

«Eta noizean behin gertatzen zaigu halako kolonizazio pentsamoldea hegoaldekoei buruz, gu kontsumitzaile soilak bagina bezala»

«Hizkuntzaren funtzioa kulturaren sortzea da eta kulturaren helburua herri nortasunaren zaintzea eta garatzea da. Herriaren aldeko gogoa ahultzen delarik hizkuntzaren aldeko atxikimendua ahultzen da»

Europako araudiak errespetatzen. Hala ere, hautetsiek, auzapezek bai eta diputatu ezagun batek, hagak zutik ezarri zituzten. Orain, Iparraldea ere emisioetan sartzearen arazoa dago.

Negoziaketa ofiziala ere iragan zen. Euskadi autonomoaren eta Gobernu frantsesaren artean, Ardantza lehendakaria Parisen ibili zelarik. Ez zen ondorio onik izan eta badirudi dossier hori itxita dagoela.

Galdera: Goazen zerbait gehiago aipatzera EKeri buruz, aipatua dugu Irisarriko Ondarearen Eguna. Bigarrena izan zela uste dut. Mugimendu ofizial handia egon zen hor; bi edo hiru ministro Pariseko izan zen bertan. Hala ere, utzi egingo dugu, zeren horri buruz asko mintzatu izan da Egunkarrietan eta aldizkarietan. EKEk aurrera begira bidea definitu du, duela gutxi bere urte hasierako bilkuran: lehentasun, helburu, xede batzuk markatu dira urte honetarako.

E.B.: Iragan den Biltzar Nagusian, Euskal Kultur Erakundeak norabide nagusiak definitu ditu, bereziki euskarari buruzko gauzei emanen diegula lehentasuna. «Xirrixta» aldizkaria lagunduko dugu, umeek euskaraz irakurtzeko gogoa har dezaten. Lucien Etxezaharreta literaturaz arduratuko da, besteak beste «Maiatz» aldizkaria jarraitzeko, liburu berriak argitaratzeko, idazleekin mahainguruak egiteko.

Bi ikerketa ere eginen ditugu, lehena Euskal Herri osoan dauden baliabideetatik, ikastetxeek eta kultur elkarteek jakin dezaten zer erabil dezaketen. Terexa Lekunberri horretaz arduratuko da publikatuak diren kultur tresnak edo oraino agertuak ez direnak, aurkezpen labur batekin katalogo erabilgarri batean zerrendatuz.

Beste ikerketa bat proposatuko dugu Iparraldeko irratigintzaz. Irratien ahalak ikusiz, uste dugu lankidetzak sakondu behar dela, bai programa, bai teknika eta finantzamenduaren aldetik. Helburu horrek suposatzen du egitasmo bat (*dossier de préfiguration*), oraingo egoera aztertuko duena entzuleen nahiak ikertuz eta araberako programak asmatuz. Orduan botere publikoen mahai gainean agertuko dugu zein diren goi mailako irratigintza profesional baten beharrak. Jadanik Herrien arteko Euskal Sindikatak bere onarmena adierazi digu. Orain irratien adostasunaren beha gaude.

Beste proiektuak kulturgintzari buruzkoak dira, nola aurten ere sustatuko eta lagunduko ditugun kulturgaien sorkuntza eta hedapena, kulturzaleen formakuntza. Alabaina, gauzak beren tokian ezarri be-

har dira. Hizkuntzaren funtzioa kulturaren sortzea da eta kulturaren helburua herri nortasunaren zaintzea eta garatzea da. Herriaren aldeko gogoia ahultzen delarik hizkuntzaren aldeko atxikimendua ahultzen da. Oroitzen naiz Quebeceko «*iraultza lasaiaren*» denborako esloganaz: «*J'ai le goût du Québec*», herriaren gostua daukat. Nortasun kolektiboaren kontzientzia da ororen oinarri. Horren faltaz, dena folklore bilakatzen da. Herriaren aldeko gogoia piztu behar dugu, euskararen aldeko sermoiak egin edo dirua erreibindikatzeaz gain, kultur ekintza ederrak zabaldu eta Euskal Herrian alaitasunaren funtzioa bete behar dugu.

Galdera: Hala ere badu tirabirarik Frantziako administrazio edo Gobernuako agintariekin, erakunde erreibindikatibotzat agertzen da sarritan eta ez bakarrik diruak administratzeko. Aipatu dituzun lan horiek guztiak hor daude. EKE ez da soilik erreibindikatiboa baina badu elementu hori. Gero badaude herri-mugimenduak, sozialak, ofizialak ez direnak Iparraldean. Badu bakoitzak bere nortasuna. Orduan EKE eta mugimendu sozial, elkarte, erakunde sozial horiek euskara eta euskal kulturaren alde dihardute. Nola ikusten duzu horien guztien eginkizuna eta jarrera erakunde publikoen aurrean eta, batez ere, funtzio erreibindikatzaile horretan?

E.B.: Euskal Kultur Erakundearen halako kortesia edo jendetasun arau batzuk finkatu ditugu kulturzaleen eta hautetsien artean. Adibidez, erreibindikazioaren ordean, debatea edo elkarrizketa erabiltzen dugu. Gure artean badakigu zein diren gai aipagarriak eta aipagaitzak. Jendea ez baldin bada prest hitz egiteko, zertarako hitz egin? Erakundearen makina delikatu bat da eta ez genuke hori blokatu behar. Ofizialtasuna eta lurraldetasuna eskatzeko beste toki batzuz baliatu behar dugu. Adibidez, Garapen-Kontseilua egokiago da eztabaida horiek eramaitzeko.

Pizkundea eta EKEren arteko konparaketa eginez, bi jokamolde ikusten ditut. Batzuek esaten dute hor ditugula erakunde ofizialak edo hitzarmenen bidez nolazpait ofizialduak, Seaska, EKE, Euskaltzaindia... Balia ditzagun euskararen zaintzeko eta euskal nortasunaren aurreratzeko. Elkarte asko bide horretatik dabilta eta EKE Biltzar Nagusira etorri dira baitakite hor dagoela boterea eta dirua. Aldiz, herri ekimekin antolatzeke egiten diren biltzarretan, Deiar kolektiboan edo Pizkundea federazioan, ez ditugu ikusten. Halako zatiketa bat gertatzen dela elkarte dirudunen eta dirugabeen artean eta hauek Pizkundean jarraitzen dute.

«Herriaren aldeko gogoia piztu behar dugu, euskararen aldeko sermoiak egin edo dirua erreibindikatzeaz gain, kultur ekintza ederrak zabaldu eta Euskal Herrian alaitasunaren funtzioa bete behar dugu»

«Arrisku bera da erakundeentzat. Burokraziara eroriko dira, oinarrian ez baldin badago elkarteen oldarra eta indarra»

Batzuek esaten dute, fede onez edo probokazio moldean, EKEk betetzen duela lehen Pizkundeak betetzen zuen funtzioa, dossierren egitea, negoziaketak, elkarteen bilgunea eta abar. Orduan zertarako Pizkundera edo Deiadar?

Neure pentsamoldea alderantzizkoa da, EKEko buruzagi izanagatik. Erakunde ofizialak ahalgabetuko dira, beren inguruan ez badaukate herri mugimendu indartsu bat. Hazparneko kultur etxearen adibidea aipatu nuen. Eihartzea biziki dinamikoa zen eta inguruko elkarteak eta herriak ere animatzen zituen, Philippe Claverie, Txomin Heguyk eta beste batzuren eraginez. Momentu batean profesionaltasuna sartzearekin, militantismoa ahuldu da eta kulturzaleak desmobilizatu dira. Artikulu batean idazten nuen: «Eihartzea eihartu da», esan nahiz zuhaitz eder bat bazegoela, baina erroak moztu dizkiogula militantismo faltan. Agian neguko loaldiaren ondotik udaberria loratuko da. Arrisku bera da erakundeentzat. Burokraziara eroriko dira, oinarrian ez baldin badago elkarteen oldarra eta indarra.

Galdera: Gai oso inportantean sartu gara. Hori zen gure azken kapitulua solasaldi honetan, eta gogoratu nahi nuke hain zuzen EKE bera Pizkundearen eraginez sortu zela. Hau da, erakunde herritarrek erakunde ofizialak sortzea bultzatu dute. Orduan zuk esaten duzun hori ezin al daiteke gerta, alegia, orain erakunde ofiziala badugu eta utz ditzagun hiltzen mugimendu sozial horiek.

E.B.: Holako zerbait gertatu da barneko kultur etxeekin. Heien eraginez antolatu zen Kultur Erakundera. Honen arrakastarengatik besteak ahuldu dira. Haatik, gaur egun Xuberoako kultur gintza odolberritu da, Uhaitzak bere nortasuna berriz aurkitu baitu, EKEren laguntzarekin batera.

Galdera: Lehen Txomin Heguyren izena aipatu duzu eta uste dut artikulu bat «Pizkundera hil da» tituluarekin argitaratu zuela.

E.B.: Bai, hori da. Lehenago Hazparneko mintzaldi batean esan zuen: «Pizkundera historian sartu da». Erantzun orokor bat egin nion: «Pizkundera hil ala bizi». Horiek horrela elkar ongi konprenitzen dute eta artikulu horien eraginez gertakari aitzinagarriak izan dira.

Galdera: Zu ez zeunden konforme, hala ere baziren bi erakunde: Pizkundera eta Deiadar.

E.B.: Hor badago 14 urteko eztabaida luze eta antzu bat. Oro har, Deiadar kolektiboak eta Pizkunea federazioak helburu berak zituzten, euskararen zaintzea, kulturaren antolatzea, herri nortasunaren gartztea. Zergatik bada Deiadarkide batzuk ez zeuden Pizkundean? eta zergatik Pizkundekide batzuek ez zuten Deiadarren sartu nahi? Espelikazio bat aurkitzeko aipatu behar genuke rupturistak eta reformistak, eskuindarrak eta ezkertiarak eta pertsonalitate indartsu batzuk. Zer balio luke euskara arrisku handian dagoelarik?

Horiek horrela, 1995eko martxoaren 25ean, Uztaritzeko biltzar berezian, aho batez (salbu boz bat) erabaki nagusi bat hartu zen, Filipe Goietxe, Seaskako lehendakariaren proposamena onartuz: «*Euskal konfederakuntza antolatuko dugu, euskarari lehentasuna emanez eta 'Euskarren Agiria' oinarritzat hartuz*». Geroztik lantalde batek araudia idatzi du, behin-behineko bulegoa antolatu da, Jean-Louis Laka bertsolaria buruzagi. Biltzar sortzailea Kanbon iragan da ekainaren 17an eta 450 elkarte gomiatu ditugu, bereizketa guztien ginetik, euskarari eta euskal nortasunari indar berri bat emateko.

Galdera: Uste dudanez, Iparraldean lankidetzak eta elkarganatzea egon da baina problema eta tirabirekin. Baliteke forma berria emateko momentua izatea. Hegoaldean berdin gertatzen da, 10-15 urte hauetan ahaleginak izan dira taldeak, indarrak eta sektore ezberdinetako erakundeak koordinatzeko. Kezka oso zabala dugu, ez bakarrik Iparraldean, baita Komunitate Autonomoan eta Nafarroan. Euskal Herri osoko koordinakundeen, mugimendu sozialen, euskalgintzan ari diren talde eta elkarten artean. Beharrezkoa ikusten duzu? Ze zailtasun aurkitzen dituzu eta nola ikusten duzu etorkizuna maila honetan?

E.B.: EKBko bilkura batzuetan egona naiz. Gure aitzin iritzia hau zen, Euskal Herri osoa hartuko duen herri-ekimenaren koordinazioaren beharra, baina gero elkarretaratzen garelarik eta hitz egiten dugularik, bakoitzak bere problemez hitz egiten dugu eta ez dakit bat bestearentzat nolabait arrotz gertatzen ez garen. Badakit, Korrika, Senpereko Herri Urrats eta horietan euskara eta euskal kultura goraiatzeko elkarretaratzen garelarik festan gauzak afektiboagoak dira eta errazago dira baina gero azterketan edo diagnosian sartzen garelarik, hor lan gehixeago badugu. Herri menperatuak beti nolabait zatituak gauden, baina guk indar bat egin behar genuke elkarretartzeko.

Galdera: Quebeci buruz hitz egiten hasi gara eta Quebecoko kon-
tuekin amaituko dugu. Quebecen egin den lana eta ahalegina

«Euskal Herri osoa hartuko duen herri-ekimenaren koordinazioaren beharra, baina gero elkarretaratzen garelarik eta hitzegiten dugularik, bakoitzak bere problemez hitz egiten dugu eta ez dakit bat bestearentzat nolabait arrotz gertatzen ez garen»

«Utopia
errealismoarekin
loturik, hori da
Quebecoko herriak
eskaintzen digun
jokabidea»

frantsesa defenditzeko eta garatzeko, esperientzia handi horretatik, zer jaso dezakegu euskalgintzarako, eta bestetik zuk zeuk, hango esperientzia komunikatzeko zein bide aurkitu dituzu eta oraindik beharbada zein bide areagotu edo hobetu behar lirateke?

E.B.: Han ginelarik, alabaina euskaldun multzo bat ginen. Claudio Harlouxet, Piarres Xarriton eta beste, gertakari aurrerakor batzuk iragan ziren, ekonomiaren, politikaren eta hizkuntzaren alorretan. Gainera denbora haietan hemen ere egoera aldatzen ari zen. Gutartean erabaki genuen Quebecen gertatu zena Euskal Herrian ere gerta zitekeela eta hortakotz herrira itzuli behar genuela. Bagenuen modelo bat adibidetzat. Optimismoa beharrezkoa da zerbait egiteko. Etorri ginen eta lan egin, bakoitzak bere eremuan.

Geroztik askotan ibili nintzen Quebecen bereziki hango hizkuntz politikari jarraitzeko. Kultur egoera ezberdina izanagatik, irabazi dutenen adibidea beti argigarri da. Udazkenean beste bidaia bat eginen dut autodeterminazio erreferenduma hurbiletik ikusteko. Ea beste urrats historiko bat eginen dutenentz. Zergatik ez? Utopia errealismoarekin loturik, hori da Quebecoko herriak eskaintzen digun jokabidea.

Galdera: Quebecera zoaz. Quebecek bere independentzia eskuratzeko badu zein aldaketa aurreratu daiteke hizkuntz politikaren eta hizkuntzaren bilakaerarentzat egoera politiko berri horretan?

E.B.: Aurtengo urriaren 30ean Quebec herrialdean eginen da subiranotasunaren erreferenduma. Independentzia hautatuz hizkuntzaren egoera argiago izanen da. Gaurregun bi lege badaude bata bestearen aurkakoa. Quebecoko 101. legearen arabera frantsesa da hizkuntza ofiziala bakarra, gutiengo eskubideak errespetatuz. Aldiz, Kanadako legearentzat bi hizkuntzak, ingelesa eta frantsesa berdin ofizialak dira, eta idazki publiko guztietan erabiltzekoak herrialde guztietan. Kontradikzio hori auzi, gatazka eta boikot askoren iturria da, adibidez afitxa elebakardunen kasuan. Quebecoko herriak independentzia erdietsiko duelarik, orain edo gero, egiazki bere nortasunaren jabe izanen da, hizkuntza eta kultura barne.

Galdera: Euskal Konfederazioa sortu da. Zertan izango dira Euskal Konfederazioa eta Euskal Kultur Erakundearen arteko harremanak? Nolako osagarritasuna espero daiteke bi erakundeon artean?

E.B.: Euskal Kultur Erakundea (EKE) sortu zen Pizkundearen eraginez. Geroztik federazio honek izendatzen ditu Administrazio Kontseiluan dauden 12 kulturzaleak. Urtean zehar elkarlan asko egiten da EKE eta elkarteen artean. Araudien arabera, Euskal Konfederazioak bere gain hartzen ditu Pizkundea eta Deiadar kolektiboen proiektuak. Nolazbait jarraipena segurtatua da.

Hala ere, erakunde bakoitza badabil bere bidetik. EKeren helburuak mugatzen dira kultur ekintzetan eta euskararen erabilera publikoan. Adibidez, irakaskuntza eta komunikabideak ez daude EKeren eginbideetan. Konfederazioa euskaltasunaren alor guztietara hedatzen da.

Horiek hola baditugu bi proiektu nagusi elgarrekin eramateko, Euskal Buxeta eta Kultur Fundazioa. Alde batetik, botere publikoei (eta herri osoari) aurkeztu behar diegu zein diren euskal kulturaren eta komunikabideen beharrak profesionalki antolatzeko. Bestalde, diru iturri berriak bilatuko ditugu, bereziki Mezenatuaren Legeaz baliatuz.

Hor dago ere ofizialtasunaren auzia, EKeren gain da aurten Estatuko beste herrialdeekin lankidetzaren kudeatzea. Herri Hizkuntzen Ihardunaldiak Parisen bilduko genituela erabaki genuen denen artean. Uste dut Euskal Konfederazioa gai dela holako kanpaina baten eramateko bai hemen, bai beste herriekin.

«Euskal Konfederazioak bere gain hartzen ditu Pizkundea eta Deiadar kolektiboen proiektuak. Nolazbait jarraipena segurtatua da»